

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 26

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

Ekainak 9

2009ko OPOSAKETAK

Gogorarazi nahi dizuegu, Haurreskolak Partzuergoaren Oposaketaren bigarren deialdirako (2009ko LEP), **eskabideak aurkezteko epea ekainaren 8tik 27ra** artekoa izango da (biak barne).

Deialdia osotasunean irakurri nahi izanez gero, jakin EHAAn (buletinean) apirilaren 27an argitaratu zela. Bertan adierazten den bezala, **235 lanpostu eskainiko** dira.

Eskabidean honako **titulazio hauek** eskatzen dira:

- Haur Hezkuntzako maisu-maistra titulua, Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria (TEJI) edo Hezkuntza administrazioak antolatu edo homologatutako Haur Hezkuntzako espezializazio edo homologazio ikastaroak.
- Hezkuntzako 2. Hizkuntza-Eskakizuna, EGA edo baliokidea.

Tasa, 13,55 eurokoa da.

GARRANTZITSUA: Deialdian eskatutako tituluen jabe edo dagozkion tasak ordainduta izatea eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen (2009ko Ekainak 27).

Euskarako titulazioa lortu ahal izateko azterketak hilabete honetan egin dituzuenei, eta oposaketak egiteko aukera galdu nahi ez baduzue, **gogorarazi:** Oposaketan izena eman eta tasa ordaindurik, ondorenean euskarako azterketa gaindituko bazenute, eta titulazioan 2009ko ekainak 27ko epe barruko datan sinatzen badizute, oposaketak egiteko aukera aprobe txatu ahalko zenukete.

Ikasteko materiala, jadanik prestatzen ari gara, eta prest egon bezain laster abisatuko dizuegu.

2008ko LEPa

Gorako errekurtsioak direla eta komentatu, Zuzendaritza Batzordeak erabaki behar dituela errekurtsioak onartu edo ez. Esleipen egunean eman gabe geratu ziren 9 plazak, errekurtsio hauen erabakiaren arabera banatuko direla. Beraz, oraindik pixka bat itxaron beharko dugu...

ANIMO DENEI, ta EDOZEIN ZALANTZARAKO HEMENTXE GAITUZUE.

ARABA: Eulogio Serdan 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org